



❖ IKATZA LIBURUGUNEA  
**Liburu aurkezpena bihar eta masaje tailerra etzi**

Ikatza Liburugunean (Zapa, 6) *Anarkherria 1986-2011* liburua aurkeztuko du Jakue Pascual egileetako batek, bihar 19:00etan. Etzi berriz, masaje tailerra izango da Maddi Minerren eskutik, 19:00etatik 20:30etara. ||

❖ MOLOTOFF IRRATIA  
**Dj Bob, Dj Plan eta Dj Bit-i elkarrizketa, gaur**

Larunbat honetan, Garin tabernan Reggae-Ragga-Hip Hop festa izango da eta Dj Bob, Dj Plan eta Dj Bit izango dira gaua girotuko duten Dj-ak. Gaur gaueko 22:00etatik aurrera, Molotoff irratiako Kale Nagusiko Sound Sister irratsaioan elkarrizketa egingo zaie hirukoteari, larunbat gaueko menu musikaren asmoak hernaniarrei zabalteko asmoz. ||

❖ KARMELO LABAKA  
**Lanbide Heziketa zer den ezagutzeko aukera, ostegunean**

Karmelo Labaka (Lanbide Heziketa) ikastetxeak atek irekiko ditu ostegunean, 18:00etan. Nahi duenak aukera izango du ezagutzeko Lanbide Heziketa zer den eta Hernanin zer eskaintzen den. Eraikina eta tailerrak ikusteko aukera ere izango da. ||

❖ KONTZERTUA  
**Txistu kontzertua igandean**

Hernaniko Txistulari Banda kontzertua emateko zen joan den igandean, baina igande honetara atzeratzea erabaki zuten. Beraz, igande honetan izango da kontzertua, 13:00etan, Milagrosan. Kontzertua bi zatitan banatuko da: herri abestiak eta beste doinu klasikoak. ||

## MAIATZAK 1 - LANGILEEN NAZIOARTEKO EGUNA

# Manifestazioak gaur, sindikatuek deituta

Langileen Eguna dela eta, sindikatuek mobilizazioak deitu dituzte gaur. LAB, STEE-EILAS, CCOO eta UGTK Donostian deitu dituzte manifestazioak eta ELAk Bilbon.

MAIATZAREN lehen da gaur, Langileen Nazioarteko Eguna eta sindikatuek mobilizazioak deitu dituzte. Langileen eskubideen eta lan baldintza duinen aldeko aldarrikapenak kalera aterako dituzte eta herritarrei dei egiten diete parte hartzeko. Manifestazioak hiriburuetan izango dira.

**LAB: Bulebarrean, 12:30etan**

*Gora maiatzaren lehen, lotu borrokari!* lemapean, LAB sindikatuak Euskal Herriko eskualde ezberdinetan egin ditu deialdiak eta Buruntzaldea eta Donostialdeako herritarrentzat Bulebarrean da hitzordua 12:30etan.

**ELA: Bilbon, 12:00etan,**

ELA sindikatuak Bilbon ospatuko du maiatzaren lehen, *Ezinbestez, sindikatua le-*

mapean. 11:30etan, Adolfo Muñoz Txiki Idazkari Nagusiak hitz egingo du Gran Via kalean eta ondoren, 12:00ak aldera, manifestazioa abiatuko da.

**CCOO eta UGT: Alderdi Ederren, 12:00etan**

CCOO eta UGT sindikatuek Erkidegoko hiru hiriburuetan deitu dituzte manifestazioak eta Donostiako eguerdiko 12:00etan abiatuko da Alderdi Ederretik. Lema, honakoa: *Dena suntsitu nahi dute. Lana, duintasuna, eskubi-deak!*

**STEE-EILAS: Donostiako Hezkuntza Delegaritzan, 12:00etan**

STEE-EILASek Donostiako Hezkuntza Sailaren aurrean egin du deialdia, 12:00etan: *Zerbitzu Publikoei eutsi, lan baldintzak errespetatu.* ||



Goiz Eguzki Abesbatzaren emanaldia, atzo.

**Jubilatu etxean ere, Maiatzak 1 ospatzen**

Goiz Eguzki jubilatutako kideek ere, urtero bezala, Langileen Eguna ospatuko dute. Meza, sari banaketa, eskulanen erakusketa eta luntxa antolatu dituzte. Atzo berriz, Goiz Eguzki Abesbatzaren emanaldia izan zen. ||

**EGITARAUA:**

**09:00etan,** hildako bazkideen alde meza, Agustinetan.

**11:00etan,** udaberriko kale-joku eta karta-jokoetako txapeldun eta txapeldunordeei sariak.

**Ondoren,** eskulan erakusketa **Amaizteko,** luntxa.

## ODOL EMAILEAK

# Bihar izango da odola emateko eguna, gaur beharrean

Odola emateko eta organo donante egiteko aukera izango da anbulatorioan, 18:30etatik aurrera. Apirilean emaile kopurua jaitsi egin zen eta dei berezia egiten diete herritarrei.

ODOLA emateko eguna izaten da Hernanin hilabeteko lehenengo asteartea, baina gaur jai eguna izanik, egunez aldatzea erabaki du Odol Emaileen Elkarteak. Hori

horrela, bihar izango da odola emateko eta organo donante egiteko aukera. Ohi bezala, arratsaldeko 18:30etatik aurrera izango da anbulatorioan.

**Martxotik apirilera, 10 emaile gutxiago**

Apirilean odol emaile kopurua dexente jaitsi zen eta elkartetik deialdi berezia egiten diete herritarrei, bereziki

gazteei, odola ematera joateko. Martxoan 75 herritarrek eman zuten odola, horietatik 5 izan ziren berriak, eta apirilean 65ek; 2 izan ziren emaile berriak. ||



**Eukene**  
Jantzidenda

Nafar kalea, 14 - Tel.: 943 332 199

**Aupa mutilak!**  
**ZORIONAK**  
**ERRUGBI TALDEARI!**

**TELEFONOAK** ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 248900 ● **DYA:** 943 464622  
 ● **Autobusak:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037  
 ● **Anbulatorioa:** 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103  
 ☩ **FARMAZIAK** ● **Egunez:** **Aizpuru** Latsunbeberri 11 - 943 336077 ● **Gauz:** **Etxebeste** Elkano 9 - 943 552087

**EGURALDIA**  
**GAUR** Hego-haize bizia izango da nagusi. Zerua aurreko egunetan baino garbiago egongo da, nahiz eta tarteka lainotu. Min.9° / Max.18°.  
**BIHAR** Ez da aldaketa handirik espero eta hego-haize biziak udaberri giroa sortuko du. Goiza eguzkitsua izango da, baina arratsaldean ekaizak jo dezake. Min.10° / Max.22°. (euskaime)

## BERRIAK - MERKATARI ETA OSTALARIEN ELKARTEA

# Dendak modernizatzeko laguntzak eskatzeko epea zabalik

Bi laguntza mota izango dira. Lehenengo taldean 2.000 eurotik gorako inbertsioa egin beharko da; bigarrenean, 600 eurotik gora.

MERKATARITZA establezimenduak modernizatzeko Eusko Jaurlaritzak diru laguntzak ematen ditu eta Hernaniko Berriak elkarteak jakinarazi duenez, eskaera egiteko epea zabalik dago. Ekainaren 30a da azken eguna.

### %15 eta %20ko diru laguntzak

Bi laguntza mota izango dira. Lehenengo taldeko inbertsioen kasuan, hau da, altzariak, errota-luzak, salmenta-lokalak eta eskaparateak, etabar berritze-ko, %15eko diru laguntza

emango da. Bigarren taldeko inbertsioetarako, berriz, %20ko diru laguntza. Esaterako, informatika aplikazioak (softwarea), informazioa prozesatzeko ekipoak eta osagarriak (eskannerra, inpresora...), kutxa erregistratzaileak, agenda elektronikoak, balantza elektronikoak, etabarrentzako.

Proiektu horietarako diru laguntzak jasotzeko, lehenengo taldean 2.000 eurotik gorako inbertsioa egin beharko da eta bigarren taldean 600 eurotik gorakoa. Guztira, 12.000 euroko laguntza izango da, gehienez.

Elkarteko kide izanda, **bestek beste, gehiago** Ehuneko horiek 2 puntutan igo daitezke enpresa merkatarien elkarte batekoa bada. Gainera, UNE 175001 kalitate ziurtagiria baldin badu, diru laguntza beste 2 puntu gehiago igoko da. Eta horrez gain, bikaintasun ziurtagiria badu, igoera 3 puntuko izango da. Guztira, kalitateagatik 5 puntura arte igo ahal izango da laguntza.

Eskaera egiteko, Berriakekin harremanetan jarri: 943 33 30 49 edo [dinamizador@comercio-gipuzkoa.com](mailto:dinamizador@comercio-gipuzkoa.com). ||



### ❖ BERRIA TALDEA Hernaniko kirolariak ere, ziztada eske

Berria Taldeak Zure ziztada behar dugu lemapean kanpaina abian jarri du, Berriak lagunak lortzeko, eta Hernaniko hainbat kirolariak ere bat egin dute kanpainarekin. Herritarrei dei egiten diete Berria lagun egin daitezen. Laguntza emateko: 943 30 43 45 edo [berria.info/berrialaguna](http://berria.info/berrialaguna). ||

### ◆ ERRUGBIA - ESTATUKO TXAPELKETA

#### Jubenilek galdu, aukerak izan arren

Jubenilak Estatuko Txapelketa jokatzeko ari dira eta igandean txapelketako bigarren partidua jokatu zuten Sevillako Cajasolen aurka. Aukerak izan arren, ezin izan zuten irabazi. Hain zuzen, 21-12 galdu zuten. Hurrengo partidua larunbatean jokatuko dute Valladolideko Salvadorren aurka, Landaren. ||

### ◆ TXANTXANGORRI

#### Igandean Amuarrain Txapelketan parte hartzeko, izen ematea zabalik

Txantxangorri elkarteak Amuarrain Arrantza Txapelketa antolatu du igandean eta izen ematea zabalik dago oraindik. Bazkide eta herritar guztiak eman dezakete izena, elkarteetan bertan. Txapelketa egunetan, parte hartzaileek 08:30etan azaldu behar dute elkartera eta 09:00etatik 13:00etara izango dute arrantzarako tartea. Arrantzatutakoarekin 13:30ak baino lehen azaldu beharko dute bueltan. Amu naturalak nahiz artifizialak erabili ahal izango dira. ||

### ❖ SASOIKO - ATE IREKIAK

#### Jaiotze eta erditzeari buruzko tailerra, bihar

Urte osoan zehar egiten dituzten ekintzak ezagutzeko ate irekiak antolatu dituzte Sasoiak, bihartik hasita. *Jaiotze eta erditzearen prestaketa poztasunez eta ezagutzarekin* izeneko tailerra izango da bihar, 19:30etan. Edurne Elorzaren (emagin erresidentea) eta Josune Goikoetxearen (gorputz hezitzailea) eskutik izango da saioa. Sarrera dohainik da, lekua hartuz gero. Izen emateko: 943 33 11 83 edo 656 721 492. Informazio gehiago: [www.sasoiko.com](http://www.sasoiko.com). ||

### ❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

**Astigarragan pisua alokatzen dut.** Auspero kalean. Amueblatua. 3 gela, sala, 2 komun. Kanpoaldera. 2 Balkoi. 600 €. Deitu: 667 901 751 (Inmo. San Sebastian)

**Lehen jaunartzerako erreportai grafikoa egiten dira.** Mota guztiak erreportaiak. Argazkilari profesionala. Eskatu aurrekontuak konpromezurik gabe. Deitu: 679 297 593

**ETXKO KONPONKETAK egiten dira;** iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antena ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

**Inigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

**IES Hernani BHI**  
A. Iturrigaga - K. Labaka

ELUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

## GIZA eta GIZARTE ZIENTZIAK BATXILERGOA

## ZIENTZIAK eta TEKNOLOGIA BATXILERGOA

[www.hernanibhi.com](http://www.hernanibhi.com)

Santa Barbara auzoa - 20120 HERNANI (Gipuzkoa) - 943 551 188 - Fax 943 552 271  
e-maila: [institutua@hernanibhi.com](mailto:institutua@hernanibhi.com)

## Etorkizuna landuz



### AUREMATRIKULAZIOA

- \* Zientziak eta Teknologia batxilergoa
- \* Giza eta Gizarte Zientziak batxilergoa

**Maiatzak 2 - Maiatzak 11 (biak barne)**

**08:30 - 16:30** astelehenetan, asteartetan eta ostegunetan

**08:30 - 14:30** asteazkenetan eta ostiraletan